

9. Praktika

“Hoy no he bebido” dokumentala. Alkoholiko Anonimoak

Jarri binaka eta ondorengo galderei erantzun teorian ikusitakoari jarraikiz:

- 1. Zein izango lirateke Alkoholiko Anonimoen talde ezaugarriak? (sailkapen orokor baten arabera, eredu orokorrak kontutan hartzen baditugu, Talde Gizarte Langintzaren baitako talde motei/ereduei erreparatzen badiegu)**

1935. urtean jaiotako talde honek zenbait talde ezaugarri ditu. Hala nola:

- Taldeko kide guztiak dira kide aktibo bilera bakoitzeko, denek hitz hartzeko aukera dutelarik. Are gehiago, taldearen izaera nahiz norabidea birdefinitzeko eta zehazteko erabateko aukera dute guztiek batera.
- Helburu bat lortze bidean eratutako talde bat da: denek partekatzen dute arazo berdina, eta berau ebazteko zenbait dinamika ezberdin erabiltzen dituzte: elkarlaguntza, informazio elkartrukea...
- Garatu nahi dituzten ahalmenak euren egunerokotasunari egokituak lirateke, ez inguru artifizial batean soilik abiarazi ahalko lituzketenak.
- Kide bakoitzak lehen pertsonan eta bakoitzaren esperientziatik hitz egin ohi du.
- **Parte hartze librea** ematen da. Hau da, bakoitzak nahi duenean hitz egingo du, inolako presiorik gabe. Hala ere, gizarte langileak elkarrizketaren noranzkoa bai eta bertan erabiltzen diren formak (hitz egiteko jarrera eta moduak) moldatzeko erabakimena izango du.
- Gizarte Langilearen egitekoa, beraz, helburuak lortze bidean urratsak ematen direla ziurtatzea izango da. Halaber, bertako kideak eroso sentitzen direla eta taldea talde gisara hazten doala, elkarlaguntzaz.

Laburki esanda, Alkoholikos Anonimos-ek errekupeazio programa bat eskaintzen du.

- 2. Zein da taldearen helburua? Eta zeintzuk dira helburu hori lortzeko ezartzen diren arauak?**

Taldearen helburu nagusia, bertara joaten den orok alkohola edateari uztea da, taldeko laguntza baten bitartez. Beste helburu zehatzetako bat izango litzate taldeka ikasten duten gauza guztiak praktikara eta beraien ingurunera eramatea litzateke. Hau burutzeko 12 baldintza daude guztira

baina garrantzitsua da taldeko lanketa honetara beti agertzea, batzuetan faltatuz gero berriro ere bueltatzea gomendatzen da.

3. Taldearen kohesioa, konfiantza, indarra non ikusi daiteke? Eta laguntzaren alde bikotasuna (Domenech)? Aipatu horren adierazgarri diren zenbait esaldi.

Taldearen kohesio edo indar hau argi eta garbi ikus daitezke, pertsonen hartzean sortzen diren harremanetan dagoela. Bata bestea laguntzeko betebeharra daukate eta hasiera batetik. Izan ere, pertsona orok besteari lagundu behar dio behar duen momentu guztietan. Laguntzaren alde bikortasun hau ematen da taldekideak bata besteari laguntza bat ematen zaienean datza. Baina hartu eman konstante bat dagoenean ematen da. Honekin esan nahi dena da, taldeko partaide batek krisi bat duenean batak besteari lagundu behar dio eta alderantziz.

4. Aipatu taldekideen eta profesionalaren (custodioa) rolak (aholkulari, hezitzaile, moderatzaile, behatzaile, lidergo mota...)

Profesional eta taldekideen arteko rol horiek apurtzea proposatzen dute, hau da, gizarte langilea edo moderatzailea, bigarren plano bat hartzean datza. Modu honetan taldeko partaideei beraien autonomia eta beraien arteko harremanak garatzen lagunduko diote.

5. Zein beste talde aipatzen da? Zein motatakoa da? Zein izango litzateke Alkoholiko Anonimoen taldearekiko aurkezten duen desberdintasun nagusia?

1951 *Al Anon* sortu zen Espainian, egun 300 talde direlarik. *Al Anon* talde honen parte dira pertsona alkoholikoekin bizi diren kideak, izan familia- kideak, izan lagunak... Arazo hau dutenen laguntzaileak edo ondoan daudenak liratekeenak. Adituek dioten bezala bideoan, pertsona hauek izan ohi dira lehenak euren ondoan bizi diren kide horien alkohol arazoa sumatzen dutenak.

Nahikari Mateo